

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Baltasarren dilema: beltza ala belztua?

Errege eguna hurbil da eta plaza publikora haserre itxuran agertu dira etorkinen zenbait elkarte. Baltasar erregearen paperean jaiotzez beltzak ez direnak aurpegia baldarki belztuta agertzea burla, gutxiespen keinu eta irain arrazistatzat jotzen dute. Herri guztietan larruazal beltz jatorrizkoak auzokide ditugun garaiotan hobe genukeela “bertsio originalak” egokitzea Baltasarren larruan, eta ez pintura merkez belztutako zurien pantomima sinesgaitzak.

Beltz autentikoaren aldeko aldarrikape-nak lehendik zetozen. Azken urteotan, Baltasarren aurpegi kolorearen faltsutasuna salatu da zenbait herritan: “Margotuta dagoela antzematen da! Hobe litzateke benetako beltza jartzea”. Badirudi Baltasarren belztasun jatorrizkoa aldarrikatzen dutenek itsu-itsuan sinesten dutela Santa Klausen bizar zuriaren sortze naturalean, horren inguruko kezkarik ez baita entzun.

Folkloreak ez ditu natur zientziek balioesteko moduko egitateak bilatzen, iruditeria propioa du eta mitoeekin jolastuz gure kultur tradizioarekin bat egiteko aukera ematen digu. Baltasar beltza da, baina ez Afrikatik etorri zaizkigun lagunen tankerakoa, gure irudimen kolektiboak eraikitako “beltza” baizik. Baltasarren belztasuna kulturala da, ez fisikoa.



DANI BLANCO

Baltasarren larru beltza, Meltxorren bizarra, Gasparren koroa edo pajeen arropak bezain faltsua zein egiazkoa da. Olenzero lanetan aritzeko inori ez zaio eskatzen curriculumean ikazkina dela frogatzea, eta sumatzen dugu aurpegia zikin itxurakoa izan arren ez duela sekula txondorrik ikusi ere egin. Inauterietako hartzak ez dira *National Geographic*-en dokumentaletan ikusten ditugunen modukoak, maiz ardi-larruz eginak daude, eta gainera, batzuk adarrak dituzte! Arizkunen edo Antzuolan hartza agertzean herritarrek badakite inauterietako hartza dela hori, zooan dagoenarekin zerikusirik ez duena. Iruditeria mitikoak ihes egiten dio egiantzekotasunari, baina horrek ez dio benetakotasunik kentzen.

Etorkinak integratzeko errege kabalkadan parte hartzea urrats garrantzitsua dela iruditzen bazai-gu bikain, ni ere horren alde. Baina aurpegi zurbildun batek Baltasarrena egiteko aurpegia belzteak ez du zerikusirik gutxiespen, trufa eta irain arrazistekin, ez ditzagun gauzak nahasi. Afrikatik etorritako bizikide berriak prest badaude errege lanetan aritzeko fenomeno, baina, izan dezatela, hala nahi badute, Meltxor, Gaspar edo

Olenzero izateko aukera eta eskubidea ere, beraien larruaren koloreari zein generoari begiratu gabe. ■

Badirudi Baltasarren belztasun

jatorrizkoa aldarrikatzen dutenek

itsu-itsuan sinesten dutela


Santa Klausen bizar zuriaren

sortze naturalean, horren inguruko

kezkarik ez baita entzun

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gaur bihar da. Dagoeneko Madrilen ditugu. Astelehena dut

eta honek argia ikusterako Martxelo, Xabier, Joan Mari, Txema eta Iñaki aulki berotuetan edukiko dituzte edonor marmolatzeako adinako bestela ergelkeriak lirakeen akusazioak entzuten. Eta BECe-ko aje emozionalaz libre, buruan Maialenen azken agurraren hondar puntua darabil perkusio. Herria euskaratik eta euskaraz sortzean zetzan *Egunkaria* erditze hura, tortura eta kartzelaldia ezartzeko motibo izan dena. Espainiak bereziki, bere aurkako erronka kolpeztat jotzen du Maialenek kantatu ebidentzia, euskal-

Orain gero da

dungoan zenbaiten bizi proiektu den hori. Eta nago, sakonki antolatua indartsu eta kement-

tsu daukagun oro dela arriskutsua botere erdaldunen-tzat. Zerrenda egina dute eta BECe-ko ulergaitzegia eta arrotzegia zaie bakean uzteko. ETB2ko erdaldun batek belarria erakutsi du jada bere ezjakinean: lanjersa du oso bizi ezin duen eztanda emozionala. Sakraliz-tzen omen dugu bertsoaren emana, proiektu politiko arriskugarri bateko pieza omen. ETako norbaiten zakuan publikatu bertso bat aski lukete BECe-ko zortziak aurretik eramateko, laguntzaileak eta guzti. Ez da paranoia, galdetu bestela Andoainen. ■